



Euskal Telebista - Miramon

1. Reyes Zelaia Madariaga	-	Plangintza
2. Joseba Alkiza Aduriz	-	Lag. Teknikoa
3. Mikel Larrañaga Rodriguez	-	Operadorea
4. Ainhize Gil Zangitu (Inpugnatuta)	-	Operadorea
4. Jon Zubeldia Perurena	-	Soinu Lag.
5. Jabi Estebanez Remiro	-	Operadorea
6. Jon Mikel Telletxea Miner	-	Kameraria
7. Silvia Mendibil Garate	-	Produkzioa
8. Koldo Leniz Ortuondo	-	Errealizadorea
9. Iñaki Otegi Orbegozo	-	Operadorea
10. Urko Artano Olasagasti	-	Operadorea
11. Luis Delgado Goñi	-	Artezlea
12. Boni Iparragirre Elizegi	-	Atrezzo
13. Xabier Sukia Arruabarrena	-	Argizatzailea

Azken urteotan krisiaz baliatu dira hainbat murrizketa eta hainbat erreforma inposatzeko. Neurri hauen guztien emaitza argia da: elite ekonomiko txiki batek bere irabaziak biderkatu ditu urteotan, gehiengo soziala pobretu gaituzten bitartean.

Zerbitzu publikoen kasuan (administrazioa, irakaskuntza, osasuna, zerbitzu soziokomunitarioak...) eraso hau garbiki ikusi ahal izan dugu eta era bitan pairatzen ditugu bere ondorioak: langile moduan eta erabiltzaile moduan. LABek betidanik argudiatu du zerbitzu publikoetako langileon baldintzak hobetzeak zerbitzua bera ere hobetzea dakarrela eta, hortaz, langileen ikuspegitik ez ezik, jendarte osoarentzako onura ere badela.

Honetarako, besteak beste, lan mundua guztiz desorekatu dute patronala eta Administrazioaren aldera: lan harremanak indibidualizatu eta negoziazio kolektiboaren eskubidea ukatu aldebakartasuna nagusituz...

Egoera honi aurre egiteko ildo sindikal argia dauka LABek: Enpleguaren aldeko ildoak; negoziazio kolektiboaren eskubidearen defentsa; eta erreforma eta dekretuei aurre egitea, soldatak, lan baldintzak eta zerbitzuak hobetzeko. Bestelako zerbitzu publikoen eredu bat dugu helburu, eta horretarako langileok antolatzea inoiz baino garrantzitsuagoa da.



Duela aste batzuk azken lau urteotako balantzea zabaldu genuen, eta horrek nahiko pista eman ditu LABek EITBn duen izaeraz, irizpidez eta jokabidez. Beraz lerro hauetan ez ditugu berriro gogoratuko, baizik eta kontatutakoa aurrerantzean ere hartzen ditugun konpromisoak betetzeko bermea dela baieztatzeko.

Oraingo hauteskunde sindikalak bereziak dira ETBn eta bereziki Bilboko egoitzan. Izan ere zentro honetan soilik ELA eta LAB aurkezten gara. Honek zera esan nahi du, bietako batek izango duela gehiengoa Bilboko Langile Batzordean edota Zentroartekoan, indarrak orekatzeko "bisagra" antzekorik ez delako egongo. LABek Bilboko eta Zentroarteko langile batzorde bilerak sustatzen jarraituko du, eta har ditzakegun akordioak berresteko langile batzarrak deituko ditu.

Koherentziaz eta zintzo egin dugu beti lan, autokritika eta eztabaidari irekiak eta argi hitz egin eta jokatu izan dugu. Langile batzarrak

eta sail sindikalaren bilera irekiak sustatu izan ditugu gaiak eta erronkak aztertu eta eztabaidatzeko, eta LABengana hurbildu diren langile guztiei irekiak egon gara, inongo karnet sindikal edo politikorik eskatu gabe, edota kontrataren bateko langileak badira ere. Komunikazio lerro ugari ere zabalik ditugu, nahi duzuen langile guztioi informazioak helarazteko.

Beraz beti jokatu izan dugun bezala jarraituko dugu, eta aurkezten dizkizuegun ildoak aurrera eramateko behar diren tresna guztiak erabiltzen jarraituko dugu: Langile Batzordeak, epaitegiak, Administrazio Kontseilua, parlamentua... eta aurrekoan aipatzen genuen bezala, lorpen guztien bermea langileon mobilizazioa izan da eta izango da. Azken urteetan aurrerapausoak eta lorpenak izan ditugu, baina lan handia gelditzen da oraindik ETBn gauzak zuzentzeko. LABek horretan jarraitzeko konpromisoa berresten du.

- Negoziazio kolektiboaren ardatz gisa enplegua, murrizketa eta erreformak atzera botatzea eta ETBren zerbitzu publikoaren izaeraren defentsa kokatzen ditugu.

- Miramonek autonomia gehiago behar du Bilboko erabakigunetik. Erabaki organizatiboak zein tekniko hutsak hartzeko garaian ez da bertako langileekin kontaktzen, eta oso argi dago "kontrol remoto" delakoa ez dela funtzionatzeko erarik egokiena, baizik eta erabakiak bertan hartu ahal izatea. Programak desagertuz edota murriztuz doaz («Zuek hor eta gu hemen», «Hizka Mizka», «Euskadi Hoy»...), zuzendaritzak ekoizpen zentroarentzat oraindik planik zehaztu ez duelako.

- Barne produkzioa handitu, batez ere euskarazko programa gehiago Miramonen ekoiztuz. Miramongo zentroaren etorkizuna bermatzeko lanean jarraituko dugu, eta balizko privatizazio edota murrizketa mehatxuei aurre egiten jarraituko diegu. Kontratetako langileen baldintzak borrokatzen jarraituko dugu, kontraten batzordean eta mobilizazioetan, lan bedina eginda ezin baita onartu halako prekarietaterik.

- Kontratazio ebentuala gardentasunez eta egonkortasunez egiteko ezinbestekoa da Lan Poltsaren kudeaketa eta kontrol egokia, eta zorrotz jarraituko dugu.

Bere garaian beharrezkoa ikusten zen plantilla estrukturala adostu eta bermatu genuen bezala, eguneratu egin behar da egungo beharrei egokitzeko.

- Kontratetako langileen egoera ez da hobea izaten. ETBk lan baldintza egokietan kontratatu dezan jarraipena eta kontrola egiten jarraituko dugu, bai eta irregulartasunak eta bidegabekeriak borrokatuko ere.

Jestoreen sistema bertan behera gelditu behar da. Argi eta garbi. Beharrezkoak diren burutzak adostu eta lan hitzarmenaren babespean era gardenaz kontratatu.

- Aukera berdintasun batzordeak lantoki bakoitzean sortu, eta benetako parte hartzea aldarrikatzen dugu. Ez dugu itxurakerietan aritzeko asmorik.

- Komunikazioa, eta batez ere ikus-entzunezkoa izugarri aldatzen ari da eta EITBra ere iritsiko dira moldaketak. Zuzendaritzak zer nahi duen argi ez badu ere, aspaldi bolo-bolo dabil "konbergentzia" hitza airean. LABek ez du onartuko lanposturik suntsitzerik edo lan baldintzak okertzerik. "Egiten duguna gutxiagorekin" baino, "daukagunarekin gehiago" egin daiteke. Ez dugu onartuko murrizketarik ez "konbergentzia" ezta "zorigaiztoko krisia" bezalako aitzakiengatik.

- ETB, barne mailan, erabat euskaraz funtzionatzenetik urrun dago oraindik. Hitzarmenetan LABek sustatutako erronkak garatzeko euskara taldeak sortzeke daude. Ez gara formazio hutsez ari eta gure konpromisoa berresteaz gain langileona ere eskatzeko aukera hau probesten dugu.

- Euskarazko eta erdarazko albistegiek egitura eta agenda berezituak behar dituztela defendatzen jarraitzen dugu, bat Bilbon eta bestea Miramonen kokatuz.

- Euskal Telebistaren erabilera alderdikoari aurre egiten jarraituko dugu. Erredakzio Kontseilua eta Estatutua bezalako tresna garrantzitsuak lorpen interesgarria izan zen, baina ez nahikoa. Albistegien egitura bera ere aldatu beharra dago. Orokorrean ere bestelako eredu aldarrikatzen dugu telebista euskalduna, publiko eta nazionala nahi dugulako.

- Lanean segurtasunari eta osasunari garrantzia handia ematen dio LABek. Madrildik inposatu berri zaigun mutualitateen dekretu berriari ere aurre egin behar diogu bai negoziazio kolektibotik zein lan osasun batzordeetatik ere. Kontingentzia arruntak eta lanekoak osasun sistema publikoak kudeatu behar ditu, gure iritziz ez baitira negozio.

- Kalitateko lana egiteko prestakuntzari garrantzia eman behar zaio, eta hemen ere jarraipen zorrotza behar da aukera berdintasuna bermatzeko eta adiskidekeriak saihesteko.

- Telebista publiko batek kudeaketa gardena derrigorrezkoa du. Langileon ordezkarioi ematen ez zaigun informazioa beste bideetatik lortzen jarraituko dugu, baina ez da fundamentua. Ez Ortuzarren garaiko zuzendaritzak egindako gehiegizko gastuak, ezta Iturbek mantentzen duen murrizketa eta ilunkeria politika ere.

Konpromiso hauek betetzeko talderik onena aurkezten du LABek. Talde anitza eta orekatua eta lanerako gaitasun eta prestutasun frogatuekin gainera. Zerrendako laugarren posturako proposatzen genuen Ainhize Gil langile ebentuala zuzendaritzak inpugnatu izana berriro salatzen dugu lerro hauetan (Bilboko zerrendan ere beste hautagai ebentual bat kendu



Hauteskunde Sindikalak

Euskal Telebista - Miramon

2015.01.15